



Lau perstona hauen bidez gure gizartearen hitzak entzun eta gero, orain Gesto por la Paz elkartearen azken adierazpena entzungo ditugu, euskaraz nahiz gaztelaniaz, bi kidek irakurrita.

Después de escuchar las palabras de la sociedad a través de estas cuatro intervenciones, llega el momento de escuchar la lectura, en euskera y castellano, por parte de dos miembros de nuestra organización, del que será el último manifiesto de Gesto por la Paz.

Coordinadora gesto por la Paz de Euskal Herria

Euskal Herriko bakearen aldeko Koordinakundea

Amaierako adierazpena. 2013ko ekainaren 1ean

Manifiesto final, 1 de junio de 2013

Hoy, decimos adiós a una de las experiencias que más estimamos de nuestras vidas. Este es el día que más deseamos desde el principio y, sin embargo, cuando ha llegado, sentimos que algo importante se desgaja de nuestros corazones.

Creemos, sinceramente, que, como ciudadanos de a pie, hemos hecho todo lo que estaba a nuestro alcance para hacer frente al fenómeno de la violencia y a sus indeseables efectos. El prisma de los derechos humanos y los principios democráticos ha sido nuestra única herramienta, la que nos ha permitido construir una voz propia llena de luz, sensibilidad y matices. Desde la infinita solidaridad con las víctimas, que encarnan el ataque que iba dirigido contra todos nosotros, hasta la exigencia para que el Estado de derecho fuera escrupuloso en su respuesta ante el terror, Gesto por la Paz siempre ha desarrollado actitudes y pensamientos que pudieran servir para compartir los mínimos éticos de la convivencia. Y, aunque, tal vez, aún, resulte inaccesible para quienes lo ven todo desde el cálculo partidista, esa voz forma parte, ya, de los significados más luminosos que cimentarán el futuro de nuestra sociedad.

Poder decir adiós con este esplendor en la conciencia constituye la parte jubilosa de nuestra celebración. Pero, a lo largo de los 28 años en que desarrollamos toda esa tarea, casi sin darnos cuenta, también hemos ido creando lazos entre nosotros que son los que, hoy, nos entristece deshacer. Muy a menudo se nos ha presupuesto valentía y coraje y, paradójicamente, es, en este momento final, cuando más los vamos a necesitar. Ni la costumbre y ni la nostalgia nos van a impedir que, una vez

más, hagamos lo que creemos más justo y sincero. Hoy, consiste en irnos como vinimos. Nos disolvemos en la sociedad siendo ciudadanos absolutamente anónimos, absolutamente plurales y absolutamente libres.

Estos son nuestros últimos minutos y, por una vez, vamos a permitirnos el capricho de dejar de lado el pudor. Nunca hemos expresado públicamente nuestro orgullo por pertenecer a Gesto por la Paz. No teníamos ni tiempo ni las condiciones para poder manifestarlo, pero hoy es el día...

...HOY ES EL DÍA de proclamarlo ante todo el mundo. Nos sentimos dichosos de haber podido formar parte de ese grupo de gente que supo levantarse de la postración ética que sufría nuestra sociedad para emprender el camino hacia el horizonte de la dignidad humana. Queremos agradecer a todas las personas que se sumaron a alguna de nuestras convocatorias su apoyo y su compañía. Gracias a ellas, la iniciativa de Gesto por la Paz no se quedó en el sueño de unos locos y pudo convertirse en el clamor mayoritario de quienes queríamos vivir en paz y libertad, incluso aunque nuestros proyectos políticos tuvieran diferencias antagónicas.

Hoy, al despedirnos, regresaremos a nuestras casas de una forma diferente. Pero, ya desde ese mismo instante, la memoria estará susurrándonos al oído nuestra experiencia en Gesto por la Paz. Y ese susurro es el que quedará vivo más allá de nosotros mismos, como parte de todos los futuros que busquen el progreso en la convivencia humana.

Muchas gracias y hasta siempre. □




Gaur eta hona, gure bizitzetan maiteen ditugun esperientzietako bati agur eta beti arte esatera etorri gara. Hasiera-hasieratik gaurkoa da egunik desiratuena, eta heldu denean, hala ere, gure bihotzetik txatal bat erauzten ari dela sentitu dugu.

Gure ustez, hiritar xumeak garelarik, gure esku zegoen guztia egin dugu indarkeriari eta bere ondorio lazgarriari aurre egiteko. Giza Eskubideen eta hastapen demokratikoak izan dira gure ikur eta tresna bakarrak. Horiek argitasun, sentsibiltate eta ñabarduraz beteriko ahotsa lantzen lagundu digute. Gu guztion kontra egindako erasoak jasan zuten biktimenganako elkartzuna abiapuntu hartuta, Zuzenbide Estatuak izugarrikeriari emandako erantzuna guztiz garbia izan dadin exijituz ere, gure koordinakundeak, gure Gestok, elkarbizitzaren gutxieneko hastapen eta jarrera etikoak garatu izan

ditu. Agian, alderdi itxurako kalkuluetatik begiratuta ulertezina egiten bazaie ere, ahots hori, gurea, etorkizuneko gizartea eraikiko duen adierazpen argitsu bihurtu da.

Kontzientzia halako argitasun aratza dugula, agur esan ahal izatea gaurko ospakizunaren alde pozgarria da, ezbairik gabe. Alabaina, 28 (hogeita zortzi) urte eman ditugu zeregin hau guztia gauzatzen, eta elkarlan honek gure arteko harreman eta loturak sendotu ditu, gaurtik aurrera moztu beharko ditugunak. Sarritan esan digute Gestokooi ausardia eta adorea izan dugula; paradoxa badirurdi ere, horiek behar ditugu oraingoan, akabuko une hauetan. Baina ohiturak edota nostalgiak ez dizkigute begiak lausotuko zuzena eta zintzoa den hori egin ez dezagun, ez. Gaur, agertu ginen bezala joango gara. Gizartean bertan urtuko gara osterera ere, guztiz arunt, guztiz anitz eta guztiz aske.



Honakoak dira gure azken uneak zuen aurrean; behin sikiera, lotsa eta umiltasuna utziko ditugu albo batera. Ez dugu inoiz jendaurrean esan oso harro sentitu garela BAKEko, Gestoko kideak izateagatik. Ez genuen astirik, ez zegoen esateko modurik, baina gaur bai, gaur adierazi egingo dugu...

...GAUR DELA EGUNA mundu guztiari hori adierazteko. Harro gaude talde horretako kide izan garelako. Hain zuzen, gure gizarteak pairatzen zuen iluntasun etikotik atera, eta giza-duintasuna eraikitzen hasi zirenen taldekoak ginelako. Inoiz gure deialdian parte izandako pertsona guztiei eskerrak luzatu nahi dizkiegu emandako laguntza eta arnasagatik. Horiei esker, Gestoren ekimena ez zen zoro batzuen ameskeria bihurtu, baizik eta bakean eta askatasunean bizi nahi genuenon deia darra, gure uste politikoak zirenak zirela.

Gaur, agur esandakoan, etxera bueltatuko gara, baina desberdina izango da. Izan ere, harrezkero, oroimenak belarrian jarriko digu xuxurla bat: Bakearen aldeko Koordinakunde honetan izandako esperientzia. Xuxurla horrek bizirik iraungo du, gugandik haratago, giza-elkarbizitzaren garapena bilatzen duten etorkizunen zati izango delako.

Eskerrik asko eta beti arte. □

